



2/2019 akta

## **OSATEK, S.A. SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN AKTA, 2019KO MARTXOAREN 21EAN EGINA.**

Lehendakariak deituta, Administrazio Kontseilua eratu da, OSATEKen egoitzan, Bilboko Bizkaia Plaza Eraikinean, Urkixo Plaza Zumarkalean (36. zenbakiko 5. solairuan), 2019ko martxoaren 21eko 16:00etan, ondoren adierazitako parte-hartzaileekin eta gai-zerrendarekin:

### **PARTE-HARTZAILEAK:**

#### **LEHENDAKARIA**

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jn.

#### **BOKALAK**

Juan Luis Diego Casals jn.

Ibon Etxeberria Olañeta jn.

Fernando Aguirre de Miguel jn.

Susana López Altuna andrea, idazkari gisa diharduena.

Honako hauek ezin izan dira etorri eta euren botoa Administrazio Kontseiluko lehendakariaren esku utzi dute: Lide Amilibia Bergaretxe eta Andoni Arcelay Salazar eta Alberto Alberdi Larizgoitia kontseilariak.

Era berean, JosuXabier Llano Hernaiz, Osatek, S.A.-ren zuzendari-gerentea, hitzarekin eta botorik gabe joan da bilerara.

Era puntual batean parte hartu du Aitziber Escondrillasek, Betean S.A. enpresako auditorea, Osatek S.A.-ren kontuen auditoretza egin duena.

### **GAI-ZERRENDA:**

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.
2. 2018ko kontuak eta kudeaketa-txostena formulatzea.
3. 2018ko jarduera eta 2019ko aurreikuspenak.
4. 2019ko inbertsioak.
5. Euskara Plana.
6. Baliogabetzea eta ahalordeak ematea.
7. Galde-eskeak.

Jarraian, Josu Xabier Llano OSATEKeko zuzendari gerenteak hartu du hitza, gai-zerrendako puntuak jorratzeko:

**1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.**

Aurreko bileraren akta irakurri ondoren, onartu egin da.

**2. 2018ko kontuak eta kudeaketa-txostena formulatzea.**

Bertaratutakoek hala eskatuta, batzarrean parte hartzera gonbidatu dute Aitziber Escondrillas, auditorea, egindako auditoretzaren behin-behineko txostenaren berri emateko. Martxoaren 22ra arteko ikuskapen-txostenaren datuak berrikusi ditu eta adierazi du kontu horiek enpresaren egoeraren irudi fidela direla. Aurkeztutako txostenean bertan zehazten den bezala, behin betiko txostena amaitzeko, Osatek S.A.-k dokumentazio jakin bat entregatuko du. Nolanahi ere, ez dute espero dokumentazio horrek aldatzea 2018ko Urteko Kontuei buruzko aldeko iritzia duen zirriborro-txostena.

Azalpena amaitu ondoren, eta Kontseiluko kideek Escondrillasen parte hartzea eskertu ondoren, auditoreak bilera utzi du.

Kudeatzaileak urteko kontuen eta 2018ko kudeaketa-txostenaren berri eman du. Hauek dira kontu horien eta itxiera ekonomikoaren daturik esanguratsuenak:

- Egoeraren balantzea 2018ko abenduaren 31n:
  - Aktibo osoa (Aktibo korronte eta Aktibo ez korronte): 18.918.073€
  - Ondare garbia + pasiboa: 18.918.073€
- Galeren eta Irabazien Kontua 2018 abenduaren 31n:
  - Galerak eta Irabaziak: 85.175€
- 2018ko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena:
  - Banaketa-oinarria: Galerak eta Irabaziak: 85.175€
- Ibilgetu Materiala:
  - Azken balio garbia: 9.257.044€
- Ibilgetu Ukiezina:
  - Azken balio garbia: 28.808€
- Zerbitzuengatikoko diru-sarrerak:
  - EM: 19.281.883€
  - Telelaguntza: 5.970,318€
  - Guztira: 25.252.201€
- Langile-gastuak: 14.992.140€

- Beste ustiapen-gastu batzuk: 8.154,822€

Gizarte osoaren plantilla finko osoa 2018/12/31n: 114 (72 emakume eta 42 gizon).

Ondoren, zuzendari kudeatzaileak Kudeaketa Txostenaren atal guztiak zehaztu ditu.

Aurkeztutako dokumentazioaren berri eman ondoren, eta Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 253. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Kontseiluak honakoa erabaki du:

"Lehenengoa: 2018ko Urteko Kontuen formulazioa eta sozietateari dagozkion 2018ko Kudeaketa Txostena onartzea, eta Kontseiluko kide guztiak ados daudela adierazteko, sinatu egin dute.

Bigarrena: Sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiari aipatutako Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta horri dagokion 2018ko ekitaldiko Emaizak Banatzeko Proposamena jakinarazi eta proposatzea, hala badagokio onar ditzan, Kontseiluan aurkeztutako moduan".

Kontseiluaren bilerak aurrera jarraitu du, gai-zerrendako puntu hauekin:

### 3. 2018ko jarduera eta 2019ko aurreikuspenak.

Irudi bidezko diagnostikoa

2018an, guztira, 108.931 paziente artatu ditugu, eta horrek esan nahi du % 4,05 egin duela gora kopuruak, 2017arekin alderatuta.

2018an, 144.375 EM esplorazio egin dira, hau da, %5,03 igo da 2017arekin alderatuta.

Ondoren, Hitzarmen Arautzailearen kalitate-adierazleen betetze-egoera, urtean zehar egindako kudeaketaren aurrerapenak eta 2018ko jarduera zientifikoa aztertu da. Era berean, OSATEKeko Zerbitzu Zentralen organigrama berriaren proposamena aurkeztu da.

### 4. 2019ko inbertsioak:

OSATEKek 2.505.926,13 euroko aurrekontua du inbertsioetarako 2019an.

Inbertsio garrantzitsuenen proposamena hau da: OSATEKen Urdulizko unitatea egokitu, bere azpiegitura ENMko bi ekiporen jarduerara egokitzeko; OSATEKen Donostiako zentroan ENM 3T ekipoa erosi eta martxan jarri (gaur egun dagoen eta kendu behar den ekipo baten orde); eta OSATEKen 17 ENM ekipoekin bateragarria den eta OSATEKen beharrei erantzutako dion prozesatu osteko irudi-sistema bakarria erosi.

Kudeatzaileak proposamen bakoitzari dagozkion zehaztapenak egin ondoren, Administrazio Kontseiluak baimena eman du deskribatutako inbertsioak egiteko.

### 5. Euskara Plana.

Euskara Planaren garapenari dagokionez, orain arte emandako pausoen berri eman da, eta bereziki, martxoaren 8an OSATEKen hizkuntza-normalkuntzarako teknikari bat kontratatu dela aldi baterako. Ildo beretik, OSATEKen 2019rako Euskararen Kudeaketa Planeko puntu nagusiak zehaztu dira, eta horien bidez, besteak beste, irudi korporatiboa eguneratuko da, pazienteekiko harremanak haiek nahi duten hizkuntza ofizialean izatea erraztuko da, eta OSATEKeko langileen artean euskara lan-hizkuntza gisa sustatuko da.

Apirilaren 8an Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean egingo den agerraldiaren berri eman da. Agerraldia Osasun Sailburuak berak eskatu du, OSATEKen Euskararen Erabilera Normalizatzeko lehenengo Plana aurkezteko.

## 6. Baliogabetzea eta ahalordeak ematea.

2018ko urriaren 18an, Sozietateko Batzar Nagusiak Daniel Salazar Irusta OSATEKen Administrazio Kontseiluko kidearen kargu-uztea adostu zuen. Horren ordez, eta kargu horretarako, Ibon Etxeberria Olañeta aukeratu jauna da. Horrenbestez, aipatutako kargu-uztea eta izendapena egin dira, sozietateko Administrazio Kontseiluak orain arte bere lehendakariaren alde emandako ahalordetzeei dagokienez.

Hori horrela, Administrazio Kontseiluak honakoa erabaki du:

"Lehenengoa: Daniel Salazar Irusta jaunari emandako ahalmena baliogabetzea eta ondoriorik gabe uztea. Ahalmen hori Manuel López Pardiñas notarioaren aurrean emandako eskrituran eman zen, 2017ko uztailaren 14an, 1990eko uztailaren 14an.

"Bigarrena: Ibon Etxeberria Olañeta jaunari honako ahalmen hauek ematea sailburu gisa, eta bere kargua betetzen duen bitartean. Ahalmenok Kontseiluak berak adierazitako muga barruan eta jarraibideen arabera garatuko ditu:

Edozein motatako efektu eta moneta bidez bideratutako ordainketa-eragiketa guztiak egitea, sinadura solidarioaren bidez, eta eragiketa bakoitzaren gehieneko bolumena Administrazio Kontseiluak ezarriko du, eta hemendik aurrera eta aldatzea erabaki arte 90.151,82 eurokoa izango da. Eragiketa horiek pertsona hauetako edonork egin ahal izango ditu, besteak egon ez arren: Josu Xabier Llano Hernaiz, OSATEKeko Zuzendari-Gerentea (NA: 22.727.708M), Ignacio J. Berraondo Zabalegui, Sozietatearen Presidentea (NA: 15.915.741V), edo Ibon Etxebarria Olañeta Sozietatearen Kontseilaria (NA: 30.606.705F). Eragiketaren bolumenak aipatutako zenbatekoa gainditzen duenean, gutxienez aipatutako pertsona horietako biren sinadura mankomunatu beharko da.

Administrazio Kontseiluko lehendakariari eta idazkariari ahalmena ematen zaie, biei berdin, notarioaren aurrean ager daitezen eta aurreko akordioek eskatzen dituzten inskripzioak egiteko beharrezko izapideak egin ditzaten.

## 7. Galde-eskeak:

Beste aztergaririk ez dagoenez, 18:00etan amaitutzat eman da bilera, hurrengo deialdira arte.

IDAZKARIA

Sin.: Susana López Altuna

PRESIDENTEA

Sin.: Ignacio J. Berraondo Zabalegui